Zatikiekin problemak

1. 80 pertsonaz osatutako elkarte batean ¾ emakumeak dira. Kalkulatu elkarte horretan zenbat emakume eta zenbat gizon dauden.

Eragiketa: Emaitza:

2. Bost trafiko-istriputik bitan pertsonaren bat zauritu egiten da. Asteburu batean, batez beste, 80 istripu baldin badaude, adierazi zenbat istriputan zaurituko zen pertsonaren bat.

Eragiketa: Emaitza:

3. Hogeita hamar puxtarri ditugu, eta, horietatik, hiru bosten gorriak dira, eta gainerakoak, urdinak. Kalkulatu zenbat puxtarri gorri eta zenbat urdin dauden.

Eragiketa: Emaitza:

4. Errepideen bidegurutze batera iristen diren ibilgailuetatik, 1/5 eskuineko bidetik joaten da eta gainerakoak, ezkerrekotik. Bidegurutzera 120 ibilgailu iristen baldin badira, zebatek hartuko dute ezkerreko bidea? Eta zenbatek eskuinekoa?

Eragiketa: Emaitza:

LIVEWORKSHEETS